



PANTAILA TXIKIAN

Gaizka Izagirre Brosa

Historia apur bat. Zinemaren historiako lehen mende osoa aztertutik beharko bagenu, transpertsonak filmetatik sistematikoki ezabatu direla erraz ondorioztatu daiteke. Europako Zinema Berria delakoa –R.W. Fassbinder zuzendaria, esaterako– edota zinema independentea iritsi zen arte, ia ezin zen ulertu patologizatzailea edo karikatureskoa ez zen transexualitatearen tratamendurik. “Arauz kanpoko” identitate eta sexualitateek burlesque eta underground kulturaren adierazpen lekua aurkitu zuten arren –90eko hamarkada hasieran New Queer Cinema delakoa osatu zutena– ez da identitate transgenekoarekin nahastu behar.

«20.000 ESPECIES DE ABEJAS» ETA NAIZEN ELKARTEA

Argi geratu da bi izen horiek irromoki lotuta daudela, eta gaia aipatzen hasita, ezinbestekoa iruditzen zait elkarte horrek egiten duen lana goraiatzeko. Euskal Herriko adingabe transexualen familiak biltzen dituen elkarte da eta helburu nagusia familiei laguntza, trebakuntza eta orientazioa ematea da. Sofia Oterok aktore onenaren Zilarrezko Hartza jasozuenean eta esker on mezua zabaltzen hasi zenean, Naizen ere aipatu zuen. Elkartetik larunbat gauean bertan zabaltu zuten erantzuna sare soziale-tan: «Naizen elkartetik, begiak malkotan eta bihotzak irribarrez, geure Sofia Otero maitea zoriondu nahi dugu (...) Film zoragarri honek haurren tran-

Transexualitatea pantailan: zenbait hausnarketa eta gomendio

Amaitu da aurtengo Berlingo Nazioarteko Zinemaldia eta, zalantzarik gabe, edizio historikoa izan da euskal zinemagintzarentzat. Lehenik, Estibaliz Urresolaren «20.000 especies de abejas» Sail Ofizialean lehiatu delako; euskal zinemagile batek Berlinaleko Sail Ofizialean bere lehen filma erakusten duen lehen aldia da. Bigarrenik, filmaren protagonistak, 8 urteko Sofia Otero basauriarrak, aktorerik onenaren Zilarrezko Hartza irabazi duelako. Eta, batez ere, filmak jorratzen duen gaiak muga guztiak gainditu dituelako: sexu aniztasunaren aldarria egiten du lanak, haurren errealitateak ardatz hartuta. Hori da gaurko gomendioetarako izan dudana inspirazio iturria eta erdigunean kokatu nahi dudana gaia: transexualitatea pantailan txikian.

sexualitatera hurbiltzeko aukera emango du, ez aurreiritzi, diskurtso edo ideietatik, baizik eta bertatik, ikusia izateko beharra duen neskato horren bizipenetik, familia horrek gertatzen ari dena ulertzeko, onartzeko eta laguntzeko bizi dituen zailtasunetatik. Film honek ikuslearen bihotza ukituko du, gai unibertsalei buruz hitz egiten baitu: onarpen-beharra, beldurra, zaurgarritasuna, entzutearen garrantzia, konplizitatea, maitasuna... baldintzarik gabeko maitasuna. Istorio unibertsala, aniztasunari kantu bat». Mezua osorik elkartearen Instagram kontuan irakur daiteke.



**TRANSEXUALITATEA TELESAILATAN:
FIKZIOA**

Filmetan ez dut gehiegi sakonduko, telesailetan zentratu nahi dudalako. Garrantzitsua da oso pertsona transgeneroen errealitatea fikzioan islatzea eta horiei buruzko istorioak diren bezalakoak zintzoki lantzea, jakina, baina are garrantzitsuagoa iruditzen zait, alde batetik, gai horiek jorratzeko benetako aktore transsexualak erabiltzea eta, batez ere, telesailaren erdiguneko gaia hori ez izan arren, pertsona horiei aukerak ematea (sorzaille, aktore edota gidoilari).

Hobeto azalduko dut. “Euphoria”-n, adibidez, Hunter Schafer aktore transak Jules Vaughn pertsonaia gorpuzten duen arren, haren genero identitatea ez da telesailaren gatazka nagusia eta erabat normalizatua eta txertatua dago gidoiaren barruan. “Orange is the New Black” edota “Glee” ere horren adibide dira.

Beste aldean, bada polemika apur bat sortu zuen film bat eta aipatzen dudan diskurtso horren kontrakoa dena: “The Danish Girl” (Tom Hooper 2015). Eddie Redmayne aktoreak (gizon zisgeneroa) pertsonaia transsexual bat gorpuzten du, benetan existitu zen Lili Elbe artista daniarra. Ordura arte ohikoa zen transsexualak ez ziren aktoreek pertsonaia transak gorpuztea; Hillary Swank (“Boys Don’t Cry”) eta Jared Leto (“Dallas Buyers Club”) aktoreek, adibidez, Oscarretan arrakasta itzela lortu zuten pertsonaia transsexualak interpretatzen. Orduz geroztik, zorionez, zinemak aurrera egin du pixkanaka, sexu-aniztasun eta trans pertsonen irudikapen handiagorantz. “Tangerine” (2015) edota “Una mujer fantástica” (2017) laneetatik aurrera badirudi joerak positiboa izaten jarraitzen duela.

Goazen pantaila txikiko adibide interesgarri batzuekin.



Veneno

Atresmedia

Zoragarria da Javi-ek burutu duten lana, emozionalki oso boteretsua eta bihotzaren hondoraino sartzen den horietakoa. Cristina Ortizen bizitza kontatzen dute: ‘La Veneno’ bezala ezagunagoa, Espainiako transsexual ezagun eta ikonikoenetako bat izan zen.

Denboran zehar egindako bidaia txundigarria iruditu zait, telebistaren atzealdeetatik hasi eta Cristinaren bizitza osoko ibilbideraino, maisutasun eta maitasun ikaragarri kontatua. Frankismo osteko Espainia atzerakoi, homofobo eta ultra-katolikoaren erretratu leiala ere margotzen du, estandar jakin baten barruan sartzen ez zen edota egokitzen ez zen oro gaizki tratatzen eta umiliatzen zuenarena.

“Veneno” bezalako ekoizpenak existitzea beharrezkoa iruditzen zait. Pertsonaia gusatu ala ez, ikusi egin beharko zenukeen telesaila da. Cristina Ortiz beste adibide bat besterik ez baita, trans pertsonen ikuspuntu fisiko zein emozionaletik bizitzan zehar jasan behar dutenaren lagin bat erakusten duena. Javi-ek espainiar telebistako panoraman iraultza txiki bat lortu dute.



Transparent

Amazon

Hiru anaiek aitaren deia jaso dute. Mort Pfefferman-ek (Jeffrey Tambor) afaria antolatu du etxean, bere bizitzan zerbait aldatzen ari dela azaldu nahi die. Seme-alabek minbizia duela susmatzen dute, baina ez, aita ukatu egingo du, eta, hiruren erreakzio egoistak ikusita, hasieran ez du bere sekretuaren berri emango. Telesailaren lehen kapituluetan, bere identitate transgeneroa jakinaraziko die eta nola Mort Maura izatera pasatuko den. Telesailak, 2014an estreinatu zenean, aurrerapauso handia

Lehen orriko argazkian, Sofia Otero aktore basauriarra Berlinen irabazitako Zilarrezko Hartzarekin. Beste orrietan transsexualitatearen gaia lantzen duten ikus-entzunezko lan desberdinen fotograma eta afixak.
Tobias SCHWARZ | AFP - GAUR8

ekarri zuen transgeneroaren telebistako figurazioan, adierazpen mesprezagarri edo biktimizatuetatik urrun.

Pose

HBO Max - Disney +

Ryan Murphy-k sorturiko telesail hau New York hirian 80ko hamarkadaren amaieran girotuta dago. Protagonistak LGTBIQ+ kolektiboko pertsona afro-amerikarrak eta latinoak dira; nagusiki emakume transak. Aurrez aurre izango dituzte hiesaren pandemia, drogen mundua, prostituzioa eta LGTBfobia, beste hainbat auzi sozialen artean.

Telesailaren pertsonaia biziki interesgarriez eta gai mami-tsuaz harago, sarean topatu du-dan EHU-ko Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradu-ko lan bi-kain bat ere goraipatu nahi nu-ke. Izan ere, Andrea De Moura Arrojeriak sakon heldu dio ber-tan ondorengo gaiari: “Hizkera inklusiboaren azterketa ‘Pose’ telesailaren gaztelaniazko azpi-tituluetan”. «Luzaroan patriar-kala eta binarioa izan den gazte-lania eraldatzen ari da. Jabetzen ari gara hizkuntza-joera bazter-tzaileek gizarte-generoei egiten dieten kalteaz, eta, ondorioz, ge-ro eta indar handiagoa hartzen ari da pertsona guztiak aintzat hartuz hitz egiteko joera. Lagu-narteko berbaldietan ez ezik, baita testuinguru formalagoe-tan ere, hala nola, ikus-entzu-nezko produktuetan. ‘Pose’ tele-saila izan zen ikus-entzunezko arloan hizkera inklusiboa era-biltzen lehena, Latinoamerika-rako egindako azpтитuluetan ‘-e’ morfema neutroa edo ez-binarioa erabili zutenean». Hemen lana osorik: <https://labur.eus/9R8tY>

DOKUMENTALAK:
ERREALITATEAREN ISLA

Dokumentalek egun duten in-darra ikaragarria iruditzen zait. Egia da, historiari errepa-ratuz gero, betidanik izan dire-la hainbat gai salatze-ko edo errealitate gordinak deskubri-tze-ko ezinbesteko erreminta, baina azken urteotan berega-natu duten lengoaia zinema-tografikoa eta hunkiberatasun maila itzelak iruditzen zaizkit. Hemen ere ezin guztiak aipa-tu, baina honako hauek berezi-ki interesgarriak iruditzen zaizkit.

Petite fille

Filmin

Zazpi urteko Sasha mutil ba-ten gorputzean harrapatu-rik dagoen neska da. Sebastian Lifshits zuzendariak era deli-

katu eta oso arretatsua erabiliz islatu du Sasharen eta haren inguruko- en esperientzia, do- kumental eredugarri, hunkiga- rri eta zoragarri hau eraikitze- ko. Dokumentala amarekin duen elkarriketarekin hasten da. Hasieran, errua eta mina sentitzen dituen ama baten beldur errepikariak agertzen dira. Izan ere, ordura arte ala- bak bakarrik sentitu eta bizi behar izan baitu hori guztia. Interesgarria iruditzen zait is- torio horrek gurasotasunean zein eragin duen azaltzea; gu- rasoak eredugarriak baitira arrazoinamendu eta portaere- tan, baita anai-arrebak ere.

Transit


TV3 nahieran

Dokumental hau adingabe transexualen familietan mur- giltzen da lehen pertsonan azaltzen diren bost kasuren bi- dez: David (6 urte), Estrella (11 urte), Raquel (14 urte), Mario (17 urte) eta Marta (23 urte). Trantsitua egin aurretik eta le- kukotasun hunkigarrien bidez, gazte hauen sufrimenduaren eta gurasoek onarpen proze- suan maiz bizi izaten dituzten zailtasunen lekuko bilakatzen gaitu.

Mikele

Filmin

Ekhiñe Etxeberría iruindarrak zuzenduriko lan honek nera- bezaroaren konplexutasunei buruz hausnartzen du. Mikele Uharten bizi den 16 urteko ne- rabe bat da. Gainerako gaz- teentzat bezalaxe, bizitza aha- lik eta gehien aprobetxatzeko eta etorkizuneko planetan pentsatzen hasteko unea da beretzat ere. Herrian kuadrilla- rekin izandako esperientzia- ren bidez, Mikelek transexuali- tatearen ikuspegi alternatiboa deskribatzen du dokumental honetan.



Transhood

HBO Max

Kansas hirian bost urte baino gehiagoz filmatutako doku- mental honek lau haur trans- generori jarraitzen die (4, 9, 12 eta 15 urtetik aurrera) nerabe- zarora hurbiltzen ari diren bi- tartean. Familia transgenero gisa, familie- k nola borroka- tzen duten, eraldatzen diren eta, batzuetan, ustekabe- ko as- moak aurkitzen dituzten era- kusten du. Dokumental honek ezjakintasunaren eta diskrimi- nazioaren zimenduak eraitsi

nahi ditu, trans pertsonetikiko gaur egun ere existitzen dire- nak. Eskoletan jarri beharko li- tzatekeen dokumentala.

Disclosure: Trans Lives on Screen

Netflix

Transexualak zineman nahiz telebistan aurkezteko modua aztertzen du dokumental ho- nek. Azterketa hori Hollywoo- deko gremioko pentsalari eta sortzaile garrantzitsuenekin burutu da: Laverne Cox, Lilly Wachowski, Yance Ford, Mj Ro- driguez, Jamie Clayton eta Chaz Bono, besteak beste. Ar- txiboko material zabala erabi- liz, lan honek ikusleari zine- magintzan trans pertsonekin zer ez den egin behar erakus- ten dio. Emakumezko aktore transexualek prostitutak gor- putzearen normalizazio tra- kets eta bidegabea, esaterako, edota sarri askotan polizia- te- lesailetan hildakoak transe- xualak izatea.

Zoritxarrez, inongo platafor- matan topatuko ez dituzuen arren, beste bide batzuetatik ikusteko aukera baduzue, bes- te bi izenburu hauek ere go- mendatu nahi dizkizuet: alde batetik, bere herrialdea uztera behartuta, Ugandako neska gazte transgenero bati jarrai- tzen dion “The Pearl of Africa” dokumentala. Eta, bestetik, Mathis familiaren eta 6 urteko alaba transexualaren (Coy) is- torioa azaltzen duen “Growing Up Coy” lana.

ADIBIDE GEHIAGO

Filminek badu gai honi eskai- nitako aspikanal propioa, 70 izenburu inguru biltzen ditue- na: [https://www.filmin.es/ca- talogo/tema/transgenero](https://www.filmin.es/catalogo/tema/transgenero). Eta, bestalde, Naizen elkartearen webgunean “baliabideak” ata- lean eduki interesgarri ugari ere topatuko duzue (naizen.eus/eu/baliabideak).